

t tipi t tapa

2001eko apirilak 19 • XXI. urtea

06

Kirola: Mololo IRIGOIEN

Nafarroako txapeldun

Lesakako pilotaria Nafarroako txapeldun suertatu da afizionatu mailan. Profesionalentara salto egitea zail ikusten du, baina heldu den urtean jokatu den Munduko txapelketa prestatzen ari den taldearekin entrenatzen ari da.

03

Elkarrizketa: Amets ARZALLUS



Bigarren urtez segidan Nafarroako bertsolarien txapeldun suertatu da Hendaiako Amets Arzallus. Apirilaren 1ean Beran egindako finalean segurtasun handia eta bertsokera ederra erakutsi zituen. Bi txapelekin kontent dago eta orain Euskal Herrikoan finalerdietara ailegatzearekin amesten du.



04-05

Bertizko historia liburuan bildua



Sarrera BERAtik da
Alkaiagako industrialdean
 Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
 Tfnoa. 948 630 537
 Fax. 948 631 443



*4.000 m²ko
 erakusketa
 mobleak ikusteko*

Larunbat arratsaldetan irekia

Sukaldeak

Egongelak

Logelak

Bainugelak



**I ILEK
 FE I E IL**

GI EL TIC .
 SUNVIEL ELU UE .
 C LZ S VI GILI .
 FL ISTE I IS.
 F T MEN .
 I L NI S.
 I INGI EN .
 M C UZLENCE .
 MUE LEŞTELLETXE .
 S L CI E L .
 TXIMELET EN
 VI JEŞ L Z L MENTEN

I IL K2 IL
 S L CI E L
 LM N Z

12h. 13h. 14h. 15h. 16h. 17h. 18h. 19h. 20h. 21h. 22h. 23h. 24h.
 1. 2. 3. 4. 5. 6. 7. 8. 9. 10. 11. 12. 13. 14. 15. 16. 17. 18. 19. 20. 21. 22. 23. 24.
 ENT G TUT Y EGUST CI N
 C I FS
 J ISC N
 FG S CHF
 C ME CI I JK
 INES
 C J EN V RR

DATUAK...

- Joan den urtean Goizuetan bezala, apirilaren 1ean Beran Nafarroako txapelkun suertatu zen Hendaiaiko Amets Arzallus.
- Ondotik Estitxu Arozena, Xabier Silveira, Sustrai Colina, Bittor Elizagoien, Iñigo Olaetxea, Joxe Juan Zubieta «Etxabe» eta Juan Mari Lopez sailkatu ziren.
- Euskal Herriko txapelketan finalerdietan sartzearekin egiten du amets Arzallusek.



Amets ARZALLUS Hendaiaiko bertsolaria

EGUNKARIA

ELKARRIZKETA

«Bi aldiz atera eta bi txapel lortu, kontent egoteko modukoa da»

Jon ABRIL

BIGARREN TXAPELKETA ETA BIGARREN TXAPELA. TXAPELDUN HANDI BATEN KONFIRMAZIOA DA?

Ez dakit txapelkun handi baten konfirmazioa den, baina lehengo urteko txapelketaren konfirmazioa izango da. Bigarren aldiz atera, eta bigarren txapela janztea... berriz ere hala egokitu zait eta kontent egoteko modukoa da. Lehengo urtean zorrea izan nuen haraino iristeko eta aurten ere bai, eta ea aurrerantzean ere horrela segitzetik izango den.

ZORTEA BAINO GEHIAGO, GIBELETIK LAN HANDIA DAGOELA AZPIMARRATU BEHAR DA.

Dudarik gabe, zorteak berea ere izaten du toki guztietan, baina atzetik ordu askotako lana dago, talde lan handia, gu horraino iristen lagundu digutenen indar eta gogo handia, eta denon lanari esker fruituak iristen hasi dira; nahiz eta oraingoz niretzat izan, uste dut denentzat balioko dutela.

URTE OSOAN EGINDAKO SAIO KOPURUAK ERE AUNITZ LAGUNDUKO ZIZUN?

Saio dezente eginez gero, horrek

«Saio dezente egiteak bertoetarako erraztasuna ematen du, konfiantza, segurtasuna... bertsoa gutxitan kantatu izan bazenu baino errazago ateratzen da»

ere bertoetarako erraztasuna ematen du, konfiantza, segurtasuna... eta bertsoa gutxitan kantatu izan bazenu baino errazago ateratzen da, eta horrek, dudarik gabe, asko jokatzen du.

FINALA PUNTA-PUNTAKOIA IZAN GABE, POLITA ETA OSOA IZAN ZEN. NOLA IKUSI ZENUEN?

Saioa nahiko polita izan zela, ni ere bat nator. Kartzelan nengoenean, ez nuen batere garbi ikusten, eta nahiko orekatua zegoela ikusten nuen. Bukaeran ere, puntuazioa jakin arte nire zalantzak nituen, eta denak hor ibili ginen. Horrek erakusten du saioa nahiko polita joan zela. Ikusi besterik ez zen Estitxuk, Etxabek eta Silveirak kolpeak botatzen zituztenean han entzuten ziren txalo zaparradak. Kolpean-kol-

pean sorta politak joan ziren. Etxabe lehen aldiz Izpuran aditu nuen eta zein ongi kantatzen zuen sumatu nuen. Finalean kolpe politak bota zituen, eta hizkuntzan ere zuzen ibiltzen da. Bertsoa ongi ateratzen zaio, eta aurrera begira gehiago ematea badu.

EUSKAL HERRIKOAN IZANEN DUZU ORAIN BURUA. GAUZA HANDIAK EGITERA IRISTEN AHAL ZARELA HASIAK DIRA ERRATEN...

Final-laurdenak gainditzea izango da nire helburua, eta finalerdietara sartzea lortzen badugu, nahikoa egingo dugu, Euskal Herrian badelako nahiko emaitza bertsolari batentzat. Oraindik denbora pixka bat badago, eta hor ere lan dezente egin beharko da txapelketa horri aurre egiteko, eta ahalik eta urrunen iristeko.

ETA ZEURE BURUA EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAKO FINALEAN IKUSTEN AL DUZU?

Amets egiten dudanean, batzuetan bai. Baina belodromoa oso toki handia da, baina oso toki gutxi dago, eta eliteko bertsolariek zer maila duten badakigu. Hori oraingoz amets bat bakarrik da.



Bertizko Jaurerria eta Erdi Arotik XX. mendera bertan bizitu direnen historia ezagutzeko liburu interesgarria idatzi du Andoni Esparza Leibar idazleak. Bidasoa Ikerketa Zentroak argitaratu du. Jakina denez, gaur egun Nafarroako Gobernua da Bertizko Jaurerriaren jabe, 1900. urtetik 1949ra azken nagusi partikularra izan zen Pedro Zigak horrela erabaki baitzuen bere testamenduan. Aitzinetik, XIV. mendetik 1884 arte, Bertiz herentzia edo oinordekotza bidez pasatu zen belaunaldiz belaunaldi. Mende guzi horietan Bertizen gertatutakoak, jabetza eskuratzeko gatazkak eta jaurreritik kanpo izandako gertakari historikoen barnean izandako eragina ematen ditu argitara «Bertizko Jaurerria» liburuak.

ANDONI ESPARZAK IDATZIA

Bertizko jaurerriaren historia ezagutzeko liburua karrikaratu da

Aitor AROTZENA

Bertizko jaurerriari buruz idatzirik deus handirik ez zegoela ikusita hasi zen bertako historia biltze lanean Andoni Esparza. «Berez historia nahiko interesgarria du Bertizek. Beti hor egon den lur-eremu bat da, beti norbaiten esku egon dena. Oso leku konkretua da, baina beste aldetik nahiko zabala da. Bere dorretxeak ditu eta auzo bat ere bada. Natura aldetik ere oso interesgarria da eta guzi horri buruz ez zegoen ia deus idatzia. Somatzen nuen historia aberatsa izan

zezakeela eta horrela gertatu da» dio idazleak.

Bertizeri buruz zerbait idatzia ote zegoen seguritik jakiteko Julio Caro Baroja zenarengana jo zuen bere garaian Esparzak. Honek, ondoko Erreparatzea jauregiaren historia iker-tua bazuen ere, Bertizen gainera daturik ez zeukala adierazi zion. Inguru honen iragana xeheki ikertua zuen ikertzaile handi batek gai honetaz deus ez jakiteak, batere landu gabe zegoela erran nahi zuen, eta lanean hasi zen Esparza.

Liburuaren lehendabiziko bertsioa 1994an idatzi zuen, eta urteotan sortu diren datu interesgarriak gehitu dizkio geroztik. Bidasoako Ikerketa Zentroak, Bera eta Lesakako historiari buruz argitaratutako liburuxken ondotik karrikaratu du Bertizkoa.

Artxiboetan begiratu, jaurerriarekin harremana izan duen jendea elkarrizketatu, testuak idatzi... zailtasunez betetako lana burutu du Esparzak. «Lanik zailena izan da orokorrean, datuak ez zeudela toki batean bilduak, denak oso sakabana-

tuak baizik. Artzapezpikutzan zati handi bat zegoen, baina beste arxibo batzuetan ere baziren hainbat kontu. Beste gai historiko batzuetan agiri guziak leku berean izaten dira, nahiz eta asko irakurri behar izan dena zentralizatua dago. Hemen ez eta hori izan da zailena. Gainera, ezin izan dut dena kontsultatu eta dokumentuak galdu direla uste dut».

BERTIZ FAMILIATIK, PEDRO ZIGA ETA NAFARROAKO DIPUTAZIORA

XIV. mendetik XVI. mendera arte Bertiz familia izan zen jaurerriaren jabe. 1604. urtean auzi luze bat hasi zen Bertizen jabetzarekin lotua. Honako hauek ziren salatzaileak: Joan Alduntzin, Goizuetako semea, eta bere osaba Martin Alduntzin, Errenteriakoa. Salatuak, berriz, Luis Bertiz eta bere ama, Joana Beaumont, jaurerriaren jabeak. Kasik XVII. mende osoa iraun zuen oinordekotzaren auziak eta 1672ko martxoaren 22ko sententzia baten bidez, Joan Frantzisko Alduntzin Bertiz egin zuen Bertizko jauregiaren eta maiorzakoaren jabe. Baina ondorengorik izan gabe hil zen Alduntzin eta berriz ere auzia sortu zen. Ezkontzen bitartez, jaurerria Elio familiaren eskuetara pasa zen, Vessollako markesak, hain zuzen. 1884an markesen oinordekoek saldu egin zuten Bertiz, 90.000 durotan. Eroslea Pedro Andres Oteiza narbartearra izan zen, Mikaela Iriarteren alarguna. Oihana aprobetxatzeko erosi zuen Oteizak. 1900an, berriz, Pedro Zigak erosi zuen 650.000 pezetatan. 1949an, Ziga hil zenean, Nafarroako Diputazioari eman zion jaurerria, zenbait baldintzekin: galerazia zegoen arbolak nahiz adarrak moztea, ihizian eta arrantzan egitea, fabrikak edo harrobiak paratzea eta autoak edo karruajeak ibiltzea.

Pedro ZIGA MAYO

«Hobe da zerura karrozan joatea oinez joatea baino»

Pedro RegaladoValentin Ziga Mayo Iruñean jaio zen 1867ko maiatzaren 13an. Joaquin Ziga zuen aita, Lantzekoa, eta Nicolasa Mayo ama, Eugikoa. Bi mende lehenago, 1651n, joana zen Lantzeria bizitzera Martin Ziga Matxinena, baztango Ziga herrian sortua, Ziga-Iturrigarai etxean. Maria Armandariz eugitararekin esposatzean aldatu zen Eugira.

Ziga-Mayo senar-emazteek oihal denda ttiki bat ireki zuen eta familiak posizio ekonomiko ona hartu zuen. Gaur egun arte iraun du Herederos de Joaquin Ciga enpresak, eta lenterian aritzen da orain ere.

Pedro Zigak Bartzelonan hasi zituen goi mailako ikasketak eta 1894an Zuzenbideko Doktore titulua erdietsi zuen Unibertsitate Zentralean, Madrilen. Fortuna handi baten jabe egin zen Dorotea Fernandez Moralesekin ezkontzean. Horregatik, ez zuen abokatu lanean ari beharrik izan. Ziga kultura han-

diko gizona zen eta, gaztelania eta euskaraz gain, bertze hizkuntza batzuk ere bazekizkien. Bizi izan zen artean, Zigak gorde zuen halako librepentsalari fama bat, izaera independentea, izpiritu kulturala eta kosmopolita, naturaren errespetu zaindua—zezen korriden kontra zegoen—... horrek guziak hagitz diferente egiten zuten orduko Nafarroako gainerako aristokrata eta jauntxoaren aldean. Zenbait zurrumurruren arabera, liberala eta masoia zen Ziga, baina zahartzaroan nahiko kontserbadorea, hagitz erlijiosoa eta politikatik urrundu zen. Behin senide batek galdetu omen zion ea ez zuen beldurrik halako aberastasunarekin—zen bezain kristaua izanik—arimaren salbazioa arriskuan paratzeko, eta berak erantzun: «Hobe da zerura karrozan joatea oinez joatea baino». 1949ko abenduaren

26an hil zen, 82 urte zituela. Bertizko Jaurerria Nafarroako Diputazioari eman zion bere testamenduan.



Andoni ESPARZA Liburuaren egilea

“Pedro Zigari buruzko zalantzak gelditu zaizkit, pertsonai enigmatikoa baitzen”

Zer da Bertizko jaurerriaren historian gehien harritu zaituena?

Bi gauza, beharbada. Batetik Karlistaden garaiko gertakizun interesgarriak eta batez ere Pedro Zigaren historia, pertsonai honi buruzko galdera batzuk ezin argituz gelditu bainaiz. Aurkitu dudak dokumentazioa ez da osoa. Garai hartarako oso pertsona

berezia zen, Europako elkarre pila batekin harremanak zituena, bidai asko egiten zuen, hori oso arraroa zen hemen orduko aristokrazian. Baina 70 urterekin pertsona kontserbadorea eta oso erlijiosoa zen, bere testuen arabera. Kontraesan bat dela ematen du, edo agian horrela izan zen bere bilakaera. Dena den, pertsona enigmatikoa zen Ziga.

Batzuk masoia zela ere erraten zuten, baina katoliko guztiz ortodoxoa zen.

Bertze liburuaren bat idaztea pentsatua duzu?

Nafarroako udal heraldikari buruzko artikuluxka batzuk idazten ari naiz, LURRA aldizkarian, baina laburrak dira. Momentuan ez daukat bertze libururik idazteko asmorik.

Lege Gordailua: NA-1324/85
 Frankeo Itundua: 34/79
 Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
 E-31780 BERA (Nafarroa)
 Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
 Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com/ttppi-ttapa
 ttppi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Asier Gogortza.
Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Iban Isasi, Pxti Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza.
Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunarte, Belarra...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Maleurrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria 2.400 Pta.
 Ipar Euskal Herria 180 Libera
 Europa 4.600 Pta.
 Amerika 16.500 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Baztango igerileku estaliari buruz

Pasa den Martxoaren 25an, Diario de Noticias egunkarian holako berria irakur genezakeen: "Baztango udalak igerileku estali eta klimatizatuta eraikiko du".

Artikulu horretan, orain duela 25 urte eraikiko piszina dituen arazoak nola konponduko dituzten erraten ziguten.

Berriak zioenez dagoena de-segin eta hor piszina bat txikiagoa eta hidromasaje berri bat eraikiz, baino hau gutxi bada neguan erabilgarriago izango dela sabai teleskopiko bat paratuz.

Neguan erabiltzeko igerileku bat egotea ez dago gaizki baino nire galdera da, igerileku estali bat egiteko, dagoena kendu behar da? Kendu, zeren orain dagoena txikitzea ia erdiraino udan ematen diren baldintzak okerrerako erabat aldatuko lirarteke.

Beste aldetik, pribatu batek igerileku estali bat egitego prest dagoenean udaletxeak ere egin behar du?

Berrian ere, Elizondo eskualdeko kirol burua izango zela azaltzen zitzaigun, baino hori baiez-

tatzeko, eskualdean dagoen kirol infraestruturak kontutan hartu dute? Ez al da Lekaroz instalazio kopuru eta kontzentrazio aldetik, eskualdeko kirol instalazio garrantzitsuenak? (futbol, rugby, saskibaloia, eskubaloia, atletismo, tenis, futbito, frontoia, igerileku, eta abar).

Behin betirako erabakia hartu gabe dagoenez, zergaitik ez da birplanteatzen beharra eta ko-

kapena? Eta azkenean diru publikoarekin eginez gero ez al digu berdin udal instalazioak edo Nafar gobernuko instalazioak izate?

MIGUEL URIARTE
 BALLARENA

OHARRA:

Iritzia ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttapak bere esku izanen du horretarako eskubidea.
Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
 Baserritarren zerbitzurat
 Tel: 948 453310 - Faxa: 948 453375
 Ordoki Auzoa • ARIZKUN

BELARRA
 OSTATUA - JATETXEA
 Ameztia karrika • DONEZTEBE
 Tfnoa: 948 45 03 06

Baztanen... **24 orduko zerbitzua** ...Eta Iruñean...

LOREDENA • GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
 Hilakutzak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...

IRACHE TANATORIOA
 Iratxe Monastegia, 60
 Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • ARIZKUN
 Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • NARBARTE
 Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • ELIZONDO

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
 Tel.: 948453410
 Fax: 948453378
 ARIZKUN
 Parrilan egindako haragi eta arrainak



BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Jakinarazten dut:

2001eko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 2001eko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea ekainaren 30a arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasa ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20 errekarquarekin kobratuko da.

Bortzirieta, 2001eko apirilaren 1ean

Presidentea
Miguel M^º Irigoien Sanzberro

2001. URTEKO TASAK

ERABILTZAILAEN eta TASEN MAILAK

Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan nor-bait era iraunkorrean bizi ala ez: 7.820 pta.

Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak: 6.650 pta.

Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak: 5.470 pta.

1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta elektragailuen sektorekoak ez direnak: mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan-bulegoak: 7.820 pta.

2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janaridendak), elektragailu dendak eta farmaziak: 15.580 pta.

3. Merkataritza. Autozerbitzuak: 23.390 pta.

1. Ostatua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m²ko edo gutxiagoko azalera dutenak: 15.580 pta.

2. Ostatua. 30m² baino azalera handiagoko ostatuak eta janaridenda daukaten ostatuak: 31.200 pta.

3. Ostatua. Pub eta diskotekak: 38.980 pta.

1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden elkarte gastronomikoak, eta borts mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak: 38.980 pta.

2. Jatetxea. Borts mahai baino gehiago dituzten jatetxeak: 70.170 pta.

Landetxeak. 15.640 pta.

Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak: 13.290 pta.

Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak: 10.940 pta.

1. Hostala. Hamar logela edo gutxiagokoak: 54.550 pta.

2. Hostala. Hamar logela baino gehiagokoak: 77.940 pta.

Merkataritzako saltokiak, jatetxerik gabekoak: 77.940 pta.

Merkataritzako saltokiak, jatetxedunak: 116.920 pta.

Lantegiak, lau langile bitarte: 7.820 pta.

Lantegiak, 5-10 langile bitarte: 15.580 pta.

Lantegiak, 11-30 langile bitarte: 38.980 pta.

Lantegiak, 31-60 langile bitarte: 77.940 pta.

Lantegiak, 60-150 langile bitarte: 116.920 pta.

Lantegiak, 150-300 langile bitarte: 221.550 pta.

Lantegiak, 300 langile baino gehiagorekin: 326.550 pta.

Zuzenean zabortegira botatzea: 500 pta metro kubiko bakoitzeko.

Neumatikoak zabortegian uztea: 30 pta. kiloko.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Noticias 01eko apirilak 3

«Badakit atletismoan profesional izatea arras zaila dela, baina eginahal guziak eginen ditut. Oraindik arras urrun ikusten dut, juniorretan lehen urtea dudalako eta senior mailara ailegatu bitartean bide luzea delako. Edozein gise, kirola ikasketekin uztartuko dut».

Iñaki MIHURA
Arraiozko korrikalaria
Diario Noticias 01-04-03

«Orain arte ongi eraman dut eta horrela segitzea espero dut. Lehen ametsa profesionaletar pasatzea zen. Behin hori lortuta, argi dago zer nahi dudana: eskuz eskuko txapela lortzea. Lehenbiziko Bigarren mailakoa eta gero Lehen mailakoa».

Josu BALEZTENA
Eratsungo pilotaria
Diario Noticias 01-03-29

• 11 GALDERA LABOR •



Joxe Juan ZUBIETA «Etxabe» Lesakako bertsolaria

- **Lehen aldiz Nafarroko bertsolari txapelketaren finalean. Urduri?**
Finalaren aitzinetik bai, finalean ez.
- **Aurtengo ustegabekoa izan haiz eta lore aunitz jaso dituk. Kontent?**
Lehen kanporaketan ez nintzen gustora gelditu, finalerdian dexente eta finalean hagitz gustora.
- **Bertsolaria jaio edo egiten da?**
Aunitz ikasten da, baina berezkoa ere behar du.
- **Zergatik «Etxabe»?**
Attaren aldetik heldu den goitizena.
- **Bertsolari perfektua?**
Lizasoren etorria, Egañaren ideiak eta Euzkitzeren perfekzioa.
- **Bertsoa non errexago, sagardotegian edo tabladu gainean?**
Sagardotegian, dudarik gabe.
- **Lesakako baseritik Berako pisura. Laketu duk?**
Ez nauk sobera egoten pisan.
- **Ezkondutako eta ezkongabeko bizimodutik, zer aukeratuko hukeen?**
Bietara ere hagitz gustora.
- **Astebururako plana?**
Egunez kirola eta gauez parranda.
- **Bizikletan ibiltzea gustoko duk eta kamioia gidatzen duk. Errepidean elkarbizitzea posible da?**
Kamioiean nabilenean konturatzen nauk zer traba egiten duen bizikletak eta bizikletan nabilenean, zer errespeto gutxi dioten txirridulariei.
- **Hameka galdera edo puntua nahiago...**
bien artean alde dexente badago ez al daukazu hameka baino are gehiago horrenbestez elkar hizketa akabo.

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735



Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira



© 948631076 • BERA

SELECCIONES UDANA, S. L.



**Importaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

**Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466**
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

Iriarte-Echandi, s.i.
• Aholkularitza
• Artekaritza
• Aseguruak

Kanttonberri • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

LANA

Proiektu berriendako enpresa mindegia zabaldu da Alkaiaga industrialdean

Apirilaren 5ean egin zen inaugurazio ofiziala

TTIPI-TTAPA

Hilabete batzuk lanean bazituen ere, apirilaren 5ean egin zen Lesakako Alkaiaga industrialdean kokatua dagoen Bidasoako Enpresei Bideratutako Zenbitzu Zentroaren aurkezpena. Ekitaldi honetan, Francisco Iribarren Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Kontseilaria, Jose Javier Espartza, Cederna-Garalurelkarreko lehendakaria eta Jose Luis Etxegarai Lesakako alkatea izan ziren, bertzeak bertze.

Lesakako alkateak adierazi zuenez, «gazteei irtenbidea eman nahi zaie mindegi honenkin. Gazteei beraiek beraien lanbidea sortzeko aukera eman nahi zaie eta horretarako lokalak lortzea izaten da arazorik handiena. Lehen bi urtetarako leku hori eskainiko zaie enpresa mindegian, zenbait zerbitzu osaga-



Aurkezpen ekitaldiko irudia.

JOANA IÑIGEZ

rriren laguntzaz gainera. Ilusio handia genuen proiektu honekin eta Europako laguntzari esker aitzinera ateri da».

Kizkitza Isasi ituren-darra izanen da zentru honetako arduraduna. Hirurogeina metro koa-dro dituzten sei nabe eskainiko dira. Arbizu eta Iizien irekiko diren zentru-ekin batera sarean egonen da Alkaiagakoa. Irene Gastamintza, sa-

re honetako arduraduna-
nak erran zuenez, mindegi hauetan ideia bat izan duen norbaiteri ideia hori garatzeko laguntza eskaintzen zaie. Aitzinetik, proiektuaren bideragarritasuna aztertuta behar da: «Jendeak ideia garbi du auzintan, eta hagitz ona izaten ahal da, baina ekonomikoki bideragarria ez izatea gerta daiteke».

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI



Korrika Txikia Zugarramurdin barna.

Korrika txikian parte hartu zuten haurrek

Apirilaren 30ean besta mexikarra izanen da Kisulabe elkartean

Margari eta Koro

Korrika handia ez, bainan Korrika txikia pasatu zen gure herrietatik. Martxoaren 30ean eskoletako haurrek beren korrika egiteko aukera izan zuten: goizeko 12etan Urdazubiko eskolakoak herriraino lasterkaldi luzea egin zuten: eskola honetan 3. mailatik goitiko ikasleak direnez bi kilometro pasa egin zituzten. Zugarramurdin berriz, arratsaldeko 3,30etan egin zen: korrikalariak Haur Hezkuntza eta lehen eta bigarren mailako haurrak ziren. Nahiz eta hauek zati tikiagoo korritu, kontuan hartu

behar da Zugarramurdi maldatsua dela, beraz, hauen meritua ere haundia izan zen.

Besta mexikarra Kisulaben

Urtarrilean «sixty-bestak» izan zuen arrakasta ikusi ondoren, Kisulabe elkarteak halako gisako bertze besta bat antolatzea animatu da: hurrengo «besta mexikarra» izanen da eta apirilaren 30ean ospatuko da. Benetazko mariachiak garestixeak direnez zalantzan jarri da hauen kontratazioa, bainan giro ona izanen dela ziurtatzen da.

BIZIKLETA TAILERRA
errepide, mendi, trekking eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

J. RAMOS
Zolak akutxilatatu eta barnizatzen ditut
© 948631342 BERA • © 948631712 LESAKA

bortzirUDI
BERA
FOTOKOPIAK, ENKADRETAZIOAK, PLASTIFIKAZIOAK, FAXA, E-SKEMA, SKANNERRA, PAPERBETEGIA, ARGAZKI MUNTAIK, DISEÑU GRAFICOA, IMPRENTA LANAK, SERIGRAFIA, TIRBETULAK, PUBERTATEA
Eztegara 26 behea Tel.- Faxa: 948 63 15 21

SAROB
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
© 948 630 763

LESAKA

Tantirudantza Eguna apirilaren 29an ospatuko da

Faltzes, Lasarte, Santutxu eta Saratik etorriko dira dantzariak

Aitor AROTZENA

Apirilaren 29an, igandearekin, Tantirumairu dantza taldeak antolatutako Tantirudantza eguna ospatuko da. Aitzineko urteetako dantzari tiki egunen gisako egitaraua izanen da Tantirudantza jaialdian ere. 11etan hameketakoa eskainiko zaie parte hartuko duten dantza taldeei. Aurten, Faltzesko Makaia, Lasarteko Erketz, Santutxuko Gaztedi eta Sarako Zazpiak Bat taldeekin ariko da Tantirumairu dantza taldea. Hameketakoaren ondotik, taldeak karriz karriz ibiliko dira, beraien dantza emanaldiak ibilaldi ezberdinen barna eskainiz. Ordubata aldera, Zubigai-



Dantza taldeak karriz karriz ibiliko dira goizean. GARBINE SARASOLAK UTZIA

nekoa dantzatuko dute Tantirumairukoek, kanpoko taldeek ezagutu dezaten. Ondotik, talde guzietan dantza jaialdia

eskainiko dute plazan. Handian, etxe eta elkarte ezberdinetan banatuko dira dantzari, musikari eta irakasleak,

bazkaltzeko. Arratsaldeko 6etan, eguna akautzeko, Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoen emanaldia izanen da plazan.

San Fermin Jubilatutako Elkarteak

Zaragozara bidaia, Ibilaldi Araitua eta Ama eta Amatxien Eguneko afaria eginen dira

San Fermin erretiratu elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu hurrengo astetarako. Heldu den asteazkenean, apirilak 25, Zaragozara bidaia eginen dute. Izen ematea apirilaren 22a

baino lehen egin behar da, 2.300 pezeta utziz. Goizeko 7etan abiatuko dira, Tuteran ondoan gosaldu, Zaragozan Pilarika eta hiria bisitatu eta Pedrolan bazkalduko dute. Itzulian, Erriberri

(Olite) ondoan ere galdituko dira.

Maiatzaren 1ean araututako ibilaldia prestatu dute. Izen-ematea goizeko 9,30ak arte egin ahal da eta 10etan abiatuko dira lehen ibiltariak elkartearen egoitza. Lekuenea, Pikukoborda, Juandekoborda, Erretenekoborda, Elordi, Tomasenekobor-

da eta Osasun Zentrotik pasatuko dira, berriz ere egoitzara itzuli aitzin. Hameketakoa eskainiko da elkartearen.

Maiatzaren 6an, azkenik, Ama eta Amatxien Eguna afari batekin ospatuko dute. 2.200 pezetatan salgai dauden txartelak maiatzaren 3a baino lehen hartu behar dira.



PERTSONAIA

Jone FAGOAGA

Espainiako txapeladun Skeet Olinpikoa

Jone Fagoaga le-sakarrak plater tiraketako Skeet Olinpiko modalitatean Espainiako txapeladun izan da, martxoaren 31 eta apirilaren 1ean Valentzian jokaturako proban. Skeet Olinpikoa da plater tiraketan molderik zailena: plater bakoitzari tiro bakarrik botatzeko aukera dago. Jone Fagoagak 75 plateretik 67 xehetu zituen. Ez dago batere gaizki, Jonek urte bakarrik baitu modalitate honetan. Espainiako selekzionatzaileak Erregearen Kopa prestatzeko maiatzean Zaragozan eginen den kontzentrazioa deitu du Jone. Selektzioan parte hartuz gero, elitoko kirolaria izanen da Jone, eta horrek zenbait laguntza eskainiko dizkio, baita Olinpiadetan parte hartzeko modua ere. Amets egiteko goiz da, baina 2004. urtean Atenaseko Joku Olinpikoetan ikusten ahal dugu Jone.

BEHEKO ERROIA
Loreak eta landareak
Faltzesko Erretiratu Elkarteak
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

ANIA
Janaridena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESAKA

kixkuna
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

BERA

Hiru lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak kartelak jartzeagatik

Iruñeako komandantzia deklaratu ondotik libre ateri ziren

Asier GOGORTZA

Joan den apirilaren 10ean, greba egunera-ko kartelak jartzen ari zirela Garbiñe Goia, Eneritz Mitxelena eta Ibai Gogortza gazteak atxilotu zituen Guardia Zibilak Altxatzen, karteletan ageri ziren testuak iraingarriak zirela argudiatuz. Berako kuartelean denbora luzez eduki ondotik Iruñeako Guardia Zibilaren komandantziara eraman zituzten eta han deklarazioa hartu ondotik libre utzi zituzten arratsaldeko 6ak aldera. Ibai Gogortzak Berako kuartelean, Iruñearako bidean nahiz Iruñeako komandantzia tratatu txarrak jasotzen izana salatu zuen, bertzeak bertze kolpeak,



Jende aunitzek parte hartu zuen Korrikan.

ASIER G.

mehatxuak eta buruan pistola jarri ziotela adierazi zuen. Hiru gazteak epaiketara noiz deituko dituzten esperoan dira.

Bertzalde, Kotto Altxuguren eta Imanol Larrañaga gartzelaz aldatu dituztela jakinarazi dute Amnistiaren Alde-

ko Batzordeek. Altxuguren Navalcamerora eraman dute eta Imanol, berriz, Aranjuezeko espetxera.

Nafarroako Kantu Txapelketa

Ikastolako Ttipittariak taldeak irabazi zuen ttikien sailean, eta Euskal Herrikoan lehiatuko dira

Apirilaren 8an Iruñeako Gaiarre antzokian jokatutako finalean Labiaga ikastolako Attonarriak eta Ttipittariak taldeek kantatu zuten eta bakarlarrietan berriz Jesusen Bihotzako Uxue An-

dueza aritu zen. Ttipittariak lehendabiziko saria lortu zuten *Plisti-plaust!* kantuarekin, eta honenbertzez Hernanin jokatuko den Euskal Herriko txapelketarako sailkatu dira.



FLASH

Komertzio ttikiak greba egin zuen

Apirilaren 10ean, Burujabetza eta bakearen aldeko greba egunari erantzunez herriko komertzio aunitzek itxi egin zituen bere ateak, batzuk goiz-goizetik eta bertze batzuk eguerdiko 12etatik aitzinera. Ostatu gehienak ere itxirik egon ziren egun osoan. Eskolei dagokionez, batzuk geldialdiak egin zituzten, eta Udala eta Posta-etxea ere itxirik egon ziren egun osoz. Fabriketan eta enpresa handietan, hala ere, grebak erantzun eskaxa izan zuen.

Herriko txirrindulariak sasoian

Apirilaren 8an Jon Bru Balentziaga Memorialearen gailendu zen, afizionatuen egutegian dagoen klasikarik garrantzitsuenetan. Garaien berri honekin profesionalek salto egiteko pausu erraldoia eman du beratarak.

Egun berean Juan Carlos Garro aisa nagusitu zen X. Arnotegi Ermita sarian, Euskadiko Openerako puntuak lortzeko balioagarria den proban.

Zinegotzi aldaketa

Eusko Alkartasunako Ainhua Goñi zinegotziak bere kargua utzi du eta Jose Ignacio Prieto Irazoki sartu da bere ordean.

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalafakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

Audio pinturak
Audio pinturak
Barne eta kanpoaldeak.
Aurrekontua konpromiso gabe
Tel.: 948631602-610627059

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

BAR Botxo
OSTATUA
© 948630052 • Zalain • BERA

ETXALAR

Kultur Etxeko proiektua poliki-poliki aitzinera joaki da

Nagore Ansalas eta Itziar Iriarte uda honetan igerilekuetako arduradun

Joseba eta Nerea

Udalak aspaldi dabilki buruan Etxalarren kulturetxea sortzeko asmoa. Horretarako, bada denbora dexente Udaletxe zaharrean obrak egin zituztela. Momentuan, kanpoko aldetik berritua denez, barrenkaldea zehazten dabil udala. Horrela bada, herriko elkarte ezberdinei iritzia eskatzen dabil, kultur etxeari emanen zaion erabilera erabakitzeko. Eginen diren aretoen artean liburategia, informazioa eta komunikazio teknologia berritan sartzeko puntua, eta areto handi bat (hitzaldiak, erakusketak, bilerak... egiteko) aurkitzen dira.

Puntu teknologikoari dagokionez, Etxalar herria Axura enpresarekin eta Aldude herriarekin elkartu da. Modu

honetan SAREA proiektua sortu da, Isabel Elizalderen koordinaziopean. Proiektu honen helburu nagusiak herriko jendeari teknologia berrien munduan sartzeko animatzea eta Etxalar eta Aldude, munduan ezagutzera ematea dira. Horretarako, Interneten Web orria sortzea pentsatu da. Aintzineran eraman ahal izateko Akitania-Nafarroako hitzarmenak eskaintzen duen diru-laguntza baliatuko da.

Web orria egin ahal izateko, herriko elkarte desberdinetako ordezkariak lan-talde bat osatuko dute, bakoitzak herriarentzako ikusten dituen beharrak betetzeko. Proiektu hau azarorako akautua egon behar da, nahiz eta kultur etxea prest ez izan. Bitartean, Puntu Tekno-

logikoa irekitzeko berzte lokal bat egokituko da. Honekin, Udalak lortu nahi duena kultur etxe dinamikoa sortzea da, herritarren parte-hartze zuzenarekin. Ikusten denez, kutur etxea poliki-poliki aitzinera joaki da.

Igerilekuetako arduradunak

Udaberriari sartu berri bagara ere, Etxalar Udalak udako ekintzei begira jarri da. Horietako bat igerilekuen adjudikazioa izan da. Martxoan deialdi irekia izan zen izena eman nahi zutenentzat. Iaz talde bat baino gehiago aurkeztu bazen ere, aurtengoa bakarra apuntatu da: Etxalar Nagore Ansalas eta Itziar Iriarte. Nagorek lehenbiziko urtea badu ere, Itziar lehenago ibilia da. Aipatu digunez «niretzat ez da



Herri kirolak eta baserriko jolasak uztartu ziren Etxalarren egindako topaketetan. Arantza, Igantzi eta Etxalar Udalak haurrak elkartu ziren. TTIPI-TTAPA TB

esperientzia berria, iazko uda ere igerilekuan pasatu nuen. Dena den, aurtengoa ilusio eta gogo handiz hartuko dut». Urtero bezala, ekaina erdialdera irekiko dituzte igerilekuak. Ea aurtengo udak eguraldi onaz aprobetxatzeko aukera ematen digun!

Arantza-Igantzi-Etxalar topaketa

Badira 10 bat urte Etxalar, Igantzi eta Arantzako eskolen artean topaketak egiten direla. Lehenago, hiruhilabete bakoitzean topaketa bat egiten bazen ere, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza murrizketak dela eta, urtean bi egitera pasatu dira. Aurten, lehenbiziko

antzerki-topaketa Arantzaren abenduan. Bigarrena berriz, Etxalarren burutu zen martxoaren 28an. Herri Kirolak eta Baserriko Jolasak uztartu zituen ekitaldiak eta hiru herrietako haurrak ibili ziren gelditu gabeko jolas guzietan. Kontxei Arangoa irakaslearen hitzetan «haurrak ongi pasatzeaz gain, ekintza hauen helburu nagusia ingurua ezagutzeko da. Hori dela eta, Landagain eskolako ziklo bakoitzeko ikasleek herriaren alderdi bat erakutsi zieten Arantza eta Igantzi haurrei». Eguerdialdera, herri bakoitzeko ikasleek autobusa hartu zuten, eta bukatutzat eman zuten topaketa hau. Hurrengo aldiari begira.

BORTZIRI UNIOI ANAIK
sukalderako haitzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittoria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

Ioredenda

Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

IGANTZI

Igerilekuen mantenimendurako lehiaketa ireki du Udalak

Belate Elkarteak antolatutako Herriarteko txapelketa hasiko da aste honetan

Oskar TXOPERENA

Igerilekuaren udako kudeaketaren lehiaketan parte hartzeko aukera eman du Udalak hilabetearen azken eguneko eguerdira arte. Iazko baldintza bereitsuak omen ditu pleguak eta Udalaren hasierako eskaintza ekonomikoa ere berdina da: 700.000 pezeta -BEZa barne-denboraldi osorako, ekainaren erditik irailearen erdira. Kexu agertu zen jendea iaz hartu zutenek emandako zerbitzuekin.

Sarreraren salneurriak ere aldatu egin dira: Denboraldiko abonua 4.500 pta. gostako zaie helduei, 11 urtetatik 18tara 3.000, 4tik 10tara 2.000 eta ttikiagoak dohainik. Eguneko sarrerak, berriz, honela



Igerilekua aurten hartzeko lehiaketa zabaldu da.

OSKAR TXOPERENA

gelditu dira, lehen aipatutako adinen arabera: 600, 400 eta 300 pta.

Pilota Txapelketa

Nafarroako Federazioarekin ados ez dago-

en hainbat pilota elkarrek Belate Elkartea sortu zuten. Federazioaren txapelketetan parte hartzeari ezezkorik eman ez badio ere, bere aldetik zenbait txapelketa antolatzen hasi da.

Herriarteko Udaberri Txapelketan izanen da Igantzi, Txantrea, Erronkari-Garde eta Araitz-Beteluren taldean. Heldu den aste hondarrean hasiko da lehia, Txantrea bisita eginez.

FLASH



Korrika

Eguraldiak sobera lagundu ez bazuen ere, Korrikaren inguruan antolatutako ekitaldi guztiak burutu ziren, Korrikak beti dakarkigun zirrarekin. Larunbat arratsaldean —ordukoa da argazkia— Korrika-ttikiarekin gozatu zuten haurrek, eta igande goizeko seirak aldera, izugarritzko erauntsipean bete zituzten korrikalariak Igantzi zegozkion hiru kilometroak. Biltoki Elkartearen ordezkari gisara Pili Iturbide lehen-dakariak eraman zuen lekukoa, gero Eduardo Migelena alkateari eman zion txanda, eta azkenik, eskolako umeek eraman zuten lesakarren eskuetara pasatu arte.

Inungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

| | |
|---------------|------------|
| Antzinaldeak | Tximiniak |
| Angeluak | Erlazak |
| Orma antzinak | Moldurak |
| Leihoak | Zokaloak |
| Ateak | Hilarriak |
| Arkuak | Marrazkiak |
| Pilareak | |

'Abujandada' Mazoia
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

XATURETXEA

Zahar antzekoa

Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE

ERRATEGIA

Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

ARANTZA

Medikuaren Etxeari buruzko inkesta egin du Udalak

Etxeari zer erabilpen eman nahi dioten galde egin die herritarrei

Garbiñe eta Elixabet

Martxoaren 3an egin-dako batzarrean Udalak medikuaren etxerako daukan proposamenaren berri eman zuen eta bertan, orri informatibo batez etxetara informatzeko erabakia hartu zuen. Udalaren proposamena, Medikuaren Etxeari probetxua ateratzearena da. Horretarako, azken pisua moldatu eta etxebizitza bezala errentan eman nahi da. Duela hogeitau urte herritarren laguntzarekin egin zen etxe hau eta badira 12 urte inguru goitiko etxebizitza hutsik dagoela eta nahiko hondatzen ari dela. Herrian dauden etxe hutsak ez dira errentan ematen eta herrian errentan hartzeko etxea aurkitzea hagitz zaila da.



pirilaren 6 eta 7an, hamabost lagunek itxialdia egin zuten

Apirilaren 6 eta 7an hamabortz lagunek itxialdia egin zuten Herriko Etxean. Beraien samina erakutsi nahi zuten, azken boladan Bortziriak eta egunero Euskal Herriak jasotzen duten erasoen aitzinean. Faxismo espainiarrari aurre egin lemapean egin zuten itxialdia. Igande eguerdian herriko plazan konzentrazioa egin zuten.

GARBIÑE MAIZ

Honek, Arantzako jendea inguruko herrietara joatea eragiten du. Udalak herritarren iritzia

jakin nahi du. Horretarako inkesta ttiki bat banatu du, apirilaren 20a baino lehen Udaletxe-

an uzteko. Emaizten berri apirilaren 21ean Herriko Etxean eginen den bileran emanen da.

FLASH

Kartel informatibo berriak

Gaurgero ikusi izanen duzuen bezala, bide bazterretan kartel berriak paratu dira. Herriko mugen ondoan (San Juan Xar eta Aranibar artean), gure herriaren euskalduntasuna aldarrikatuz UEMAK atera berri duen kartela jarri da. UEMAKo herri guzietan antzekoak paratuko dira, beraiek ordainduta. Bertzalde, auzoetako sarreretan ere kartel handi batzuk jarriko dira, kotxeen gidariei baserri auzoan sartuko dela eta oinez dabiltzan pertsonak eta aziendek lehenatasuna dutela adieraziz.

Aberri Eguna

Apirilaren 15ean Aberri Eguna ospatu zen. Beritze urtetan bezala, Udaltzikak deituta, eguerdiko 12etan Herriko Etxe aitzinean, aurtengo Aberri Eguneko adierazpena irakurri zen. Udalak, egun horretan herriko balkoietan ikurriña paratzeko animatu zuen jendea.

ETXANDI TXOKO
jaketxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Astelehenerdik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarrtasun planak

FUNERARIA ZERBITZUAK

Lesaka-Donoztebe

MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua

Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak

Tfnoa: 948637404 • LESAKA

Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

DONEZTEBE

Menopausiari buruzko saioak antolatu ditu Osasun Etxeak

Ezpelura taldearen eta Elizondoko COFESen laguntzarekin

Patxi Iriarte

Azkeneko urte haue-
tan ohi duen bezala, aur-
ten ere Doneztebeko
Osasun Etxeak meno-
pausiari buruzko saio
batzuk antolatu ditu. Ez-
pelura Emakume Elkar-
tearen eta Elizondoko
COFES-eko adituen la-
guntza izan dute 40 ur-
tetatik 55 urte bitarteko
emakume eta bere bi-
koteendako zuzenduta-
ko saio hauen antola-
ketan.

Bi orduitako lau saio
izanen dira, apirilaren
24 eta 26an eta maiatza-
ren 2 eta 3an, arratsal-
deko 4,30etatik 6,30eta-
ra, Doneztebeko pisu tu-
telatuetako beheitiko so-
lairuan. Izen emateko
apirilaren 20a baino le-
hen Doneztebeko Osa-
sun Etxera deitu behar
da, 948 456001 telefo-
nora, astelehenetik or-
tziralera, 11etatik 3eta-
ra (Amaia).

Osasun Etxetik adie-
razitakoaren arabera,
menopausia zer den, al-
daketak eta eragiten dio-
ten faktoreak; norbera-



Elizondoko Cofeseko langileek parte hartuko dute menopausiari buruzko saioetan.

ARTXIBOKOA

ren zainketa, elikadura
eta erlajazioa; trata-
mentu hormonal susti-
tutiboa eta klimaterioan
sortzen diren aspektu
afektibo sexualak izan
dira landuko diren
gaiak. Saio hauen bi-
tardez, menopausiari bu-
ruzko arazoak ezagu-
tzea, desdramatizatzea
eta informazio orokor
eta indibiduala izatea
lortu nahi da. Modu be-
rean, senar-emazteek

emakumea zer egoera-
tan dagoen jakitea eta
menopausia bizitzaren
bertze etapa bat dela ar-
gizatea dira saio hauen
bertze helburuak.

Sariak odol emaileendako

Apirilaren 1ean egin-
dako ekitaldian dominak
banatu ziren Donezte-
beko odol emaileen ar-
tean. Cristina Apeztegia
Saldiasen zilarrezko

ttantta jaso zuen, 50
emanaldi egiteagatik.
Jose Jabier Apeztegia
Egozkue, Jose Ignacio
Olazar Apeztegia, Migel
Oartzabal Telletxeak eta
Itxarone Zinkunegi
Arzelusek zilarrezko do-
minak jaso zituzten, 25
emanaldi egiteagatik.
Juan Carlos Arregi de-
legatua gustora azaldu
zen, gazteek ere sen-
sibilizazio handia era-
kusten dutelako.

FLASH

44 milioiko kalteordainak

1997ko urtarrilean
Doneztebeko gasolin-
degia eraikitzeke zuloa
egiten ari zirela istripua
izan zuten Oronoz-
Mugairiko Francisco
Agirre eta Lesakako
Patxi Mujikak. Oronoz-
tarra hil egin zen eta zau-
ri larriak izan zituen le-
sakarrak. Proiektua egin
zuten bi injinariak eta
kontratatistak 44 milioi pe-
zetako kalteordainak or-
daindu beharko dituzte,
29 milioikoa hildakoa-
ren senideei eta 15 mi-
lioikoa zaurituari.

Ur-hornidura sarean arazoak

Ur-depositora doan tu-
boan sortutako aire-pol-
tsek arazo aunitz sortu-
zizuten apirila hasieran.
Zenbait egunez, ez zen
urik izan eta gaez moz-
ketak egin behar izan
zituen Udalak. Donama-
rian egiten ari diren sa-
neamendu lanen ondo-
rioz sortu dira arazo
hauek. Tubo berria jarri
ondotik moldatuko dira
arazoak behin behine-
koz. Behin betiko mol-
daketa, berriz, Ituren,
Elgorriaga eta Sunbilla-
rekin batera egingen den
ur-hornidura lanekin ai-
legatuko da. Lan hauek
abuztuan adjudikatuko
izatea espero du Donez-
tebeko Udalak.



APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE



• Ateak • Tarimak • Eskailera
• Teilatuko zurak • Sukalde-mogleak
☎ 948 451906 • 676 847281 • AURTIZ

GOIZUETA-ARANO

Sari mordoxka bi herrietara Haur Kantu txapelketako Iruñeko finaletik

Maidar Antsa aranoarra izan zen gaztetxoan izarra

Esteban AROTZENA

Aurreko urteetan bezala txikitu ez bazuten ere, sari mordoxka ederra ekarri zuten Arano eta Goizuetako ordezkariak apirilaren 8an Iruñeko Gaiarre antzokian ospatu zen Nafarroako Euskal Kantu txapelketako finaletik.

Txikien mailako bakarlariekin artean bigarren saria Nerea Zabaletarentzat izan zen. Gaztetxoan artean, berriz, Haizea taldeari sari berezia eman zioten, eta Maidar Antsa eta Naiara Arotzenak osatutako bikotea aurtengo onena izan zen, bera bakarria eraman baitzuen finalera epaimahaiak txapelketako



Maidar Antsak hainbat sari lortu ditu aurten ere.

kanporaketa guzietan parte hartu dutenen artean. Dena den, gaztetxoan mailako izarra Maidar Antsa bilakatu zen. Bakarlariekin saria kolorerik gabe eskura-

tzeaz gain, publikoarena ere berak jaso zuen. Haizeako beste hainbat taldekide bezala, adinarenagatik kantu txapelketari agurra eman zion edizio honetan.

OSPAKIZUNAK



Korrikaren aldeko barrikotea eta pilotariei omenaldia

Apirilaren bi asteburuetako luzatuak zeuden bi deialdiei erantzun ikaragarria eman zien herriak, ohi duen bezala. Lehenengoan, Korrikaren aldeko barrikotean alegia, 220 lagun elkartu ziren herriko frontoian. Bigarrenetan, leku berean, 350 lagun izan ziren Asier eta Fernandezek zapelak ospatu asmoz bildutakoak.

ARESO

Pake-Toki elkarteko mus txapelketaren finala jokatu da

Jose Ramon Etxarri eta Esteban Arraiago izan dira aurtengo txapeldunak

Juana Mari SAIZAR

Aspaldiko ohiturari jarraituz, negu aldean Pake-toki elkarteko mus txapelketa hasi zen. Aurten hamabost bikotek hartu dute parte eta apirilaren 7an finala jokatu zen. Txapeldunak

Jose Ramon Etxarri eta Esteban Arraiago eta txapeldunordeak Lontxo Untsalok eta Miguel Mari Begiristain izan ziren. 46 lagunendako afora prestatu zen eta afora londoan sariak banatu ziren.

Aste Santuko ekitaldiak

Aste Santuko oporraldirako hainbat ekitaldi prestatu zituen Guraso Elkarteak: xake ikastaroa, eskulanak larruarekin... Bestalde, Gazte Olin-



Mikel Olazabal Haur Kantu txapelketaren finalean.

piadak apirilaren 19an izango dira Mankomunitateko gazteekin. Aurten Goizuetara joango dira. D r o g o m e n p e k o -

tasunaren prebentziarako teknikariak eta herrietako Guraso Elkarteek antolatuta dute. Autobusa dohainik.

LEITZA

500 milioi pezetako aurrekontua izanen du aurten Udalak

Kasik erdian inbertsioak egiteko erabiliko da

Joseba AZPIROZ

449.623.002 pezetako diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten Udalak, martxo hasieran onartutako aurrekontuaren arabera. Dirutza honetatik ia erdia, 244.483.139 pezeta inbertsioetan gastatuko dira. Bertze ondusun eta zerbitzu arruntetan 117.932.156 pezeta erabiliko dira.

Diru-sarrerei dago kienez, 148.468.604 pezeta dirulaguntzen bidez ailegatuko dira. Transferentzia arruntzen bidez, 125 milioi sartuko dira udal kutxan eta zerga ezberdinen bitartez 74 milioi.

Patxi Arraras burlatarrak irabazi zuen Herri Krosa

Scania taldeko Patxi Arraras burlatarra nagusitu zen Leitzako XXIII. Krosean. Hamar kilometroak osatzeko 30 minutu eta 49 segundu behar izan zituen. Eneko Martinez eta Alfredo Lusarretak osatu zuten podiuma eta Aingeru Mindegia izan zen lehen leitzarra. Emakumeen artean Maika Ariztegi iturndarra izan zen garaile



Leitzako Sarriopapel enpresako langileek apirilaren 4an herriko plazan egindako batzarra. Sarriopapel enpresako langileek hiru eguneko paroa egin dute konbenioaren negoziazioan enpresarekin akordiorik lortu ezean (martxoaren 28an eta apirilaren 3 eta 4an). Langileek "IPC" delakoa gehi %1,75eko igoera eta 28 lanordu gutxiago eskatzen dituzte eta enpresak "IPC" gehi %0'8 lehendabiziko urtean eta %1,25 hurrengoetan eta 8 lanordu gutxiago eskaintzen ditu.

JOSEBA AZPIROZ

eta Ima Zestau lehendabiziko leitzarra.

400 korrikalarik hartu zuten parte lasterketan eta minutuko isilunea gorde zen Diego Garcíaren oroimenez.

Arkiskil eta Errekako ur-hornidura lanak

Udalak, Arkiskil eta Erreka auzoetako ur-horniduraren obra enkante bidez adjudika-

tzeko akordioa hartu eta deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialera bidali du. Iragarkia argitaratzen denetik 26 eguneko epea izanen dute interesatutako enpresak beraien eskaintzak aurkezteko. Eskaintza hoberena egiten duen enpresak hilabeteko epea izanen du obra hasteko eta hiru hilabete bukatzeko. Finantziaketari dagokionez,

Nafarroako Gobernuak 10,1 milioi ordainduko du, Udalak 2,5 milioi eta gainerantzekoa, zerbitzuaz probetxatuko diren partikularrak ordainduko dute (4,5 milioi).

Korrika jendetsua

Eguraldi kaxkarrari eta euriari aurre eginez, jende askok parte hartu zuen Leitzan Korrikaren aurtengo edizioan.

FLASH

Jose Antonio Bergararen erakusketa Lekunberrin

Jose Antonio Bergara Beunza Leitzako margolariaren erakusketa eginen da Lekunberriko Mitxasenea Kultur Etxean apirilaren 7tik 22a bitarte, astelehenetik larunbatera arratsaldeko 6etatik 8ak bitarte eta igandeetan, goizeko 11,30etatik 1,30ak bitarte.

Mendi loteen enkantea

Uztarleku, Aritz eta Txantxartietako ohian-loteak Serreria Eraso SL enpresak aterako ditu, 3.672.000 pezetan truke.

Grebaren balorazioa

EHk apirilaren 10erako deitutako greba deialdiaren erantzuna erabatekoa izan zen komertzio eta tailerretan. Irakaskuntzan, haurtzaindegia eta institutu-ko irakasleek greba egin zuten, ez horrela eskolakoek. Landako industrialdeko tailer eta enpresetan ez zen lanik egin. Sarriopapelen bozketarik ere ez zuten egin. Administrazioari dagokionez, Udalak itxi zuen eta Osasun Etxean normaltasunez lan egin zuten.



gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
© 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta
Lizun
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

BAZTAN-URDAZUBI-ZUGARRAMURDI



Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko odol-emaileak, bazkal ondoan.

DIARIO DE NAVARRA



PERTSONAIA

Cristóbal BENGOTXEA

Arraiozek
lortu du
alkatea
azkenean

Apirilaren 8an egin zen batzarrean aukuratu zuen Arraiozek azkenean bere alkatea: Cristóbal Bengoetxea hartuko du, lau hilabeteko atzerapenarekin bada ere, Juan Bautista Oteizak utzitako lekua. Bengoetxea izan zen aurkeztutako hautagai bakarra. Hiru laguntzaile izanen ditu, Mardea eta Urrutia auzoetako ordezkari bana eta baserrietakoa bertzea. 30 arraioztar bildu zuen batzarrean Bengoetxea lanean hasteko gogoia erakutsi zuen: Bere lehendabiziko helburuak, baserrietako pistak moldatzea eta gero, kanposaindua moldatzeko laguntzak lortzen saiatzea. Modu berean, auzolanaren garrantzia azpimarratu zuen: «Balleko Udalak lanak egiteko materiala jartzen du, baina ez eskulana. Honek ere dirua balio du, eta horixe da preziskia, guk ez daukaguna».

Hiru herrien artean 420 lagunek ematen dute odola gaur egun

Urrezko bi domina eta zilarrezko sei banatu ziren apirilaren 8an

TTIPI-TTAPA

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko odol-emaileak bazkari batean bildu ziren apirilaren 8an. Kontuan hartu behar da hiru herrietan 420 odol-emaile baino gehiago daudela gaur egun eta iaz 208 litro eman zituztela. Eskuzabaltasun berezia erakutsi duten emaileei dominak eman zitzaizkien. Urrezkoa (50 emanaldi) Elizondoko Encarna Goñi Olaetxea eta Jose Martín Sobrino Habanskek jaso zuten. Zilarrezkoa, berriz, Arizkungo M^o Carmen Bernal Mihurak, Azpilkuetako Juan

Angel Mendiburu Bidartek, Irurritako Xabier Irureta Ródenas eta Crispina Mendikoa Bikoondoak, Lekarozko Antonio Iribarren Iribarrenek eta Erratzuko Jose Iturriria Etxeniketik. Ez zen ospatzeko gauza bakarra izan: joan den urtean 33 lagun egin ziren odol-emaile. Txuma Uriz delegatuak zioenez «adibide bat gara».

Osasun zentroko langileendako bereizgarria

Elizondoko Osasun Zentruko langileek etxeko etxeko bisitetan beraien

autoak aparkatu ahal izateko bereizgarriak eramanen dituzte. Balleko Udalak onartu egin du Miguel Yabar medikuak egindako eskaria. Bertan zioenez, «herriko leku batzuetan aparkatzea mugatua egotea arazo handia da osasun langileek beraien lana egin ahal izateko (etxeko etxeko bisitak, urgentziak...)». Idatzian aipatzen zenez, Merkatu Plaza ondoan dagoen Osasun Zentruko aparkamendua ere bete egiten da ordu batzuetan, anbulantzia eta larrialdietarako lekuri utzi gabe. Horregatik,

osasun langileek bereizgarriak izanen dituzte, aisa identifikatzeko moduan. Bertalde, Osasun Zentruko aparkalekuko leku batzuetan aparkatzea debekatzen duten seinaleak ere paratuko dira.

Dena dela, Udala gustora dago trafikoa arautzeko hartutako neurriekin, baina azken batzarrean onartu zenez, moldaketa batzuk eginen dira, ezinduen ibilgailuen aparkamendua errazteko. Udalarren helburua ez da isunak jartzea, «herriarrak konzientziatzea eta ongi aparkatzea baizik».

*Eskisaroi
jatetxea*
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

Gierreserren
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • © 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA
MERCERIA
PARTAKE
HIMI LEBERRIA SL
C/ALBA 10044
ELIZONDO
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

SARA

Olhain Ikastolak egoitza berria bisitatzeko parada eman zuen

Martxoaren 31n, Seaskaren kanpaina handiaren barnean

Aña Mari eta Fred

Martxoaren 31n, Ipar Euskal Herriko ikastola guzietan bezala, Olhain ikastolak ere bere atekak ideki ditu. Honela, Seaskak abiatu duen kanpaina handiaren karraketan, jende andana batetik gure herriko ikastolak egoitza berriaren bisitatzeko parada izan du. Honetaz gain, xehetasun interesgarri frango emanak izan zaizkie gaur egun dugun euskara hutsezko eskola bakarra ezagutzen ez zutenei. Bertalde, ikastolako haurrak Senpererat joan dira apirilaren 6an, Korrika Ttikin parte hartzeko.

Gaupasen garaia

Urtero bezala, udaberriarekin batean, gaupasen garaia heldu zaigu herrira. Aitzineko urteetan bi kontzertu egiten baziren ere, aurten bat baizik ez da izanen, bertzenaz hurbilegi izanen zirelakoan.

Herri Urrats bezpe-



Dut taldeak gan den urtean eman kontzertuaren irudi bat. XABI BERRUET

rakoa atxikitzea erabakia izan da eta hauek dira maiatzaren 5ean arikuko diren taldeak: Sarako trikitixak, Zizkuitz txaranga, Unama, Empalot, The 3peace, Anestesia eta Eztanda.

Antolatzaileek jakinarazten dute aterpea segurtatua dela euria balitz eta azpimarratu nahi dute bi prezio desberdin izanen direla: 30 Libera gaueko 11k ai-

tzin, 40 Libera ondotik. Egitarau fresko honen dastatzeko, hobe goiztik agertzea beraz...

Haur kantu txapelketa

Haur Kantu txapelketaren Lapurdiko kanporaketa Urruñako polikiroldegian iraganen da maiatzaren 1ean goizeko 10etatik goiti. Irabazleak Euskal Herriko finalean lehiatuko dira, ekai-

naren 9an. Urruñako kanporaketan Sarako San Josepe eskolak parte hartuko du, sei neskekin talde bat muntatua baitute. Horien kantuak kreaioa da, baina doinu ezaguna hautatu dute, Saiberri taldearena. Anais Marixular berrakarkatuko da, bere kantuak kreaio osoan izanen delarik (hitzak, airea eta musika berriak).

FLASH

Azken partida jokatu du Sarako Izarrak

Sufrikarioa bukatu da Sarako Izarra errugbi taldearentzat, denboraldi huntako azken partida jokatu baitu apirilaren 1ean. Garaipen batekin bururatu dute, 14 eta 13 irabaziz Lit-et-Mixe-ren kontra. Ohorea salbu da, beraz, baina bada heldu den saioari begira.

Ihiztarien Elkarteko Biltzar Nagusia

Apirilaren 29an, igandearekin, goizeko 9etan finkatu du Gazteen Etxean Ihiztarien elkar-teak urteko biltzar nagusia. Gan den urtean, borts urteko iraupena duen bulegoa bozkatu zuten, aldi huntan beraz, lan bat guttiago izanen dute. Urteko konduak eta ihizi sasoina aipatu beharrak dituzte. Bilkuraren ondotik, errugbi zelaian azeri ihiztari entzatz eta elkarteko buruentzatz bazkaria antolatua dute.

Korala Frantzian barna

Sarako kantariak maiatzaren 6etik 8a arte ateraldia egiten dute. Hiru eguneko bidai honek Dordogne aldera eramanez ditu.

LARRALDEA
SAGARDOTEGIA
Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKARAZ
© 948 452121

ttipi-ttapa
internet
<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.com

BYRKAITZEA
ostatu erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
© 948 599280 • URDAZUBI

RESTAURANT MIGUEL
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
© 948 631209

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI



EZKONTZAK

Jose Felipe Iparragirre Sanzberro eta **Amaia Irigoien Berrueta**, Igantzi eta Lesakakoa, 2000ko azaroaren 6an.
Rafael Antia Dito eta **Susana Heras Zubero**, Zaragoza eta Leitzakoa, martxoaren 24an.



JAIOTZAK

Xabier Mitxelena, Sarakoa, martxoaren 31n.
Igor Altzuri Otxoteko, Arantzakoa, apirilaren 4ean.
Andrea Goñi Mendiberri, Elizondokoa, martxoaren 22an.
Unai Aleman Azkarraga, Iurritakoa, martxoaren 31n.
Urtzi Juanena Etxeberria, Doneztebekoa, apirilaren 2an.



HERIOTZAK

Jose Martin Zubieta Telletxea, Alkaiagakoa, apirilaren 9an, 79 urte.
Pierre Deluca, Sarakoa, martxoaren 26an, 48 urte.
Victoriana Salaberria Loiarde, Goizuetakoa apirilaren 7an, 90 urte.
Alfonso Lopez Cobian, Etxalarkoa, apirilaren 7an, 60 urte.
Manuel Biguria Gartzia, Elizondokoa, martxoaren 26an, 60 urte.
Juana Aizkorbe Zilbeti, Elizondon, martxoaren 27an, 86 urte.
Vidal Huarte Ariztegi, Elizondon, martxoaren 28an, 74 urte.
Asier Irigoien Saiz, Elizondokoa, martxoaren 29an, 26 urte.
Jose Maria Telletxea Babaze, Elizondon, apirilaren 5ean, 66 urte.
Angela Orzanko Beorlegi, Elizondon, 78 urte, apirilaren 7an.
Mari Carmen Irigoien Irigoien, Erratzukoa, otsailaren 25ean, 54 urte.
Francisca Arretxea Indart, Berakoa, martxoaren 25ean, 89 urte.
Jose Danboriena Ameztói, Sunbillakoa, martxoaren 27an, 90 urte.
Jose Antonio Arregi Elorga, martxoaren 29an, Donamariakoa, 82 urte.
Micaela Mutuberria Mutuberria, Saldiaskoa, apirilaren 4ean, 95 urte.
Manuela Irtzabal Irtzabal, Berakoa, apirilaren 9an, 85 urte.



Joxe Martin ZUBIETA TELLETXEA

Beran hil zen, 2001eko apirilaren 5ean

*Dena eman zenigulako
Adiorik ez atta, geroarte baizik.*

Pakita, Migel eta Pili, Jose eta Asun, Ramon eta M^a Asun, M^a Sol eta Luis, Arantza eta Ander.



Atatxi Joxe Martin

*Izarrrik ederrena, hor goiko zeruan
zu izanen zarela, guri dizdiran*

Beti gure bihotzean, atatxi.

Zure bilobak:
Mikel eta Izaskun, Iban eta Ainhoa,
Aiala eta Ekhiotz, Xabier eta Saioa,
Unai eta Irtz.

Joxe Martin ZUBIETA TELLETXEA

*Egun gogor hauetan gure ondoan
izan zaretan eta gure saminarekin bat
egin duzuen guziet, ESKER MILA.*

FAMILIA

DATUAK...

- «Mololo» Irigoien pilotari lesakarrak afizionatu mailako Nafarroako eskuz banakako pilota txapelketa irabazi zuen apirilaren 7an Labriten. Finalean, 18-6 irabazi zion Navarrori.
- 25 urte egin ditu. «Beti hori amesten dugu, baina profesioaletako trenea pasatu dela iruditzen zait, enpresek jende gaztea hartzen baitute».
- Heldu den urtean Iruñean jokatu den Mundu txapelketa prestatzen ari den taldean sartua dago.



Mololo IRIGOIEN Lesakako pilotaria

AITOR AROTZENA

«Munduko txapelketan parte hartzea polita izanen litzateke»

Aitor AROTZENA

Urte aunitz daramazki pilotan Miguel Ramon «Mololo» Irigoien lesakarrak eta apirilaren 8an Labriten irabazi zuen afizionatu mailako Nafarroako buruz buruko txapela da bere lorpenik handienetakoa. «Orain dela bizpahiruhilabete Espainiako klub arteko txapelketan txapeldun izan nintzen eskuz banaka, Paz de Ziganda elkartearekin, baina Nafarroako txapeldun izatea handia da, bai». Nafarroako txapelketa honetako lehendabiziko fasean, laukotetan banatu ziren pilotariak. Mololok berriki profesional egin duten Gorka Retegi beratarrari irabazi egin zizkion bi partidak, eta bertze bi pilotariak eskuko minez erretiratu egin ziren. Final laurdenetan Burlatako Iriarteri ere bi partidak irabazi zizkion eta gauza bera egin zuen finalerdietan, Zabalo bere lagunaren kontra. Finala arte ez zuen arazo handiegirik izan, beraz. Finalerako ez zuen faborito argirik Mololok: «Navarrok urte aunitz daramatza tituluak irabazten. Elkarren kontra behin jokatu dugu eta hartan nik irabazi nuen,

«Pilota ez da profesioaletan akautzen eta afizionatu mailan ere gauza politak egiten ahal dira. Munduko txapelketan parte hartzea handia da eta txapela lortuko banu, zer erranik ez»

baina partidu guziak ezberdinak dira eta finalak oraindik gehiago». Navarrok ez zuen finalerdia jokatu beharrik izan. Juntxo Apezetxea goizuetarraren kontra aritzekoa zen eta honek istripu larria izan zuen –zorionez, dagoeneko arriskutik kanpo eta etxean da goizuetarra—. Gainera, eskuz binaka txapeldun izana zen Navarro, pare bat aste lehenago. Beraz, moralez gainezka eta Mololok baino atseen gehiago izana zuen. Halere, aisa hartu zuen mendean lesakarrak Iruñeko finalean, 18-6.

2002KO MUNDUKO TXAPELKETAN PARTE HARTZEA ESKURA DU

Pilotan ari diren gehienek bezalaxe, profesioaletara pasatzeko ame-

tsa du Irigoienek, baina 25 urterekin, ez du batere erraxa ikusten. «Zaila ikusten dut, enpresek jende gaztea kontratatzen dute eta niri trenea pasatu zaidala iruditzen zait». Dena den, afizionatuetan punta-puntako pilotaria da eta gogor entrenatzen du. Heldu den urtean Iruñean jokatu den Munduko txapelketa prestatzen ari den taldearekin entrenatzen ari da, Fernando Arretxe profesionala gidari dutela. «Orain dela hilabete baino gehixeago deitu zidaten taldearekin entrenatzeko eta ilusioa egin zidan. Profesioaletan ez banago ere, Munduko txapelketa batean parte hartzea ere handia da. Eta behin horretara ailegatu eta gero, txapela lortuko banu zer erranik ez. Pilota ez da profesioaletan akautzen eta afizionatuetan ere gauza politak egiten ahal dira».

Gehien bat banaka aritzen da orain Irigoien. Bikoteka aritzen denean aurrelaria da. «Ez dakit birtute handiegirik daukadan, baina airez gus-tora sartzen naiz eta orain gantxoa hobetzen saiatuko naiz, horretan badut nahiko lan».

AGENDA egunez egun

OSASUNA

DONEZTEBE

Apirilaren 24 eta 26an eta maiatzaren 2 eta 3an, menopausiari buruzko saioak egiten dira Doneztebeko pisu tutelatuetoako beheitiko solairuan. Arratsaldeko 4,30etatik 6,30etara. Izen emateko epea apirilaren 20an akituko da 948 456001 telefonoan (Amaia). Doneztebeko Osasun Etxeak, Ezpelura elkartearen eta Elizondoko COFES-en laguntzaz antolatua.

KIROLA

GOIZUETA

Apirilaren 19an

Gazte Olinpiadak Leitzaldeko Mankomunitateko gazteekin. Drogomenpekotasunaren prebentziorako teknikariak eta Guraso Elkarteek antolatua.

GAUPASAK

SARA

Maiatzaren 5ean

Herri Urrats bezperako gaupasa: Sarako trikitixak, Zizkuitz txaranga, Unama, Empalot, The 3peace (Japonia), Anestesia eta Eztanda. Sarrera; Gaueko 11k aitzin 30 Libera, ondortik 40 Libera.

KANTU TXAPELKETAK

URRUÑA

Maiatzaren 1ean

Goizeko 10etarik goiti, Haur Kantu txapelketaren Lapurdiko kanporaketa Urruñako polikiroldegian.

TELEBISTAKO TXOKOA



Moda soinean eta telebistan

Azken urteotan ia ohitura bihurtu diren ekitaldiak dira moda desfileak. Modak, jende aunitz mugitzen du, eta horren adibide izan zen eskualdean egin zen azken desfilea, joan den abenduan Donezteben.

Heldu den igandean, Almandozen antzekoa gertatuko da. Apirileko feria eskualdean sortutako modaren inguruko lehen ekimena izan zen, eta horregatik gaur egun garrantzitsuenetakoa da.

Hori dela eta TTIPI-TTAPA TELEBISTAK azoka garrantzitsu honen berri emanen dizu. Aitzinetik antolatzaileek aurtengo berritasun eta sorpresak aurkeztuko dizkigute, eta hurrengo egunean azokari buruzko saio berexia ikusi ahal izanen duzue gurean, beti bezala arratseko albistegiaren ondortik. Ondorioz azken asteotan egin



dugun bezala astero kirolari eskeintzen diogun jokoa solas saioa asteartearekin egiten dugu, eta laburmetriak asteazkenean.

DISKAK



«Oskorri & The Pub Ibiltaria V»

OSKORRI

ELKARLANEAN

Antzinako herriek eta hizkuntzek, tradiziozko errepertorio zabal eta oparoa izan ohi dute, herriaren iragaitearen kontakizun bilakatzen direnak. Kantu tradizionalean, herriak berak kontaktaturik, herriaren historia eta giza nortasuna azaltzen dira, herritarren sufrimenduak, gogo eta antsiak, negar eta irriak, kritikak eta ironiak... Kantua, beti ere, bizitza honetako penak gainditu eta ahazteko motibo ona izan da. Oskorri taldearen abentura honek taldearen kantatzearen plazer kolektiboa dakarkigu bosgarrenez. Bertze 17 kantu herrikoitopatu dituzu, aitzinekoak bezala jendearen kolaborazioaz zuzenean grabatuak; orain artekoekin, denetara 87 kantu. Playback, partituras eta letren itzulpenaz osaturik dator diskoa, ahalik eta gehien erabiltzeko.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA



ZERRIKIA

Zerrikumea
(20 kilo): 10.000 pta.

Zerri gizona
(95-100): 194 pta/k.

Zerramak:
85-95 pta./kiloa, bizirik.



BEHIKIA

Aretze gizenak:
200/230 k

Idixkoak/Urruxak:

Pta/kg. Kanal

Extra 405-415

1.koa 385-395

2.koa 365-375

Aretze gizenak: 320 kilolotik goiti

Idixkoak/Urruxak:

Pta/kg. Kanal

Extra 380-390

1.koa 360-370

2.koa 340-350

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Nabarrak: urruxak

20.000-22.000 eta idixkoak 31.000-33.000 Pta.

Mestizoak: urruxak

20.000-22.000 eta idixkoak 32.000-34.000 Pta.

Zaldikoak: Pta/k

Sortuberriak: 535-545

Zaldi-behorrak: 355-365

Bildotsak: Pta/k

6-8kilokoak: 875-925

8-10 kilokoak: 750-800

JAKIN BEHARREKOAK



AGENDA egunez egun

BESTAK

ZUGARRAMURDI

Apirilaren 30ean

Besta mexikarra Kísulabe elkartean.

BAIGORRI

Apirilaren 29an

Nafarroaren Eguna

DANTZAK

LESAKA

Apirilaren 29an

Tantirudantza jaialdia.

Tantirumairu, Faltzesko

Makaia, Lasarteko Erketz,

Santutxuko Gaztedi eta

Sarako Zazpiak Bat dantza

taldeen emanaldia.

PAILAZOAK

LESAKA

Apirilaren 29an

plazan arratsaldeko 6etan

Kiki, Koko, Moko eta Flax

pailazoen emanaldia.

BIDAIAK

LESAKA

Apirilaren 25ean

San Fermin Jubilatuko Elkarte

Zaragozara joanen da. Izen-

ematea apirilaren 22a baino lehen.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 TFNORA. DEITU

APIRILAREN 16TIK 22RA

Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

APIRILAREN 23TIK 29RA

Arantza, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

APIRILAREN 30ETIK MAIATZAREN 6RA

Lesaka, Narbarte, Irurita eta Goizueta.

Hizkuntzak ikastera atzerrira

Udan gero eta familia gehiagok bidaltzen dituzte seme-alabak atzerrian ikastera. Esperientzia gehientsuenak onak izaten dira, baina halere, batzuetan gurasoak haserre agertzen dira.

Arazorik ez izateko, hainbat gauza hartu behar dira kontutan alde aurretik:

- Ikastaroa hasi baino bi edo hiru hilabete lehenago hasi behar da informazioa jasotzen. Horrelako bidaiak eskaintzen dituzten enpresek informazio-erriak atera ohi dituzte.

Ikastaroari begira, ikaste-txarearen kalitatea izan behar du kontuan. Begiratu ia ikaste-

txea ezaguna den. Ikastaroek lau aste inguru irauten dute eta gutxienez hiru orduko saioak egin behar dira eguneko.

Ikasgela bakoitzean, gehienez, hamabi edo hamalau ikasle egotea komeni da. Euskaraz edo gazteleraz hitzegiten ez badute, hobe.

Familia batekin bizitzea hobe

Adituen ustez, ikasle egoitza baino hobe da familia batekin bizitzea, ikasle-egoitzetan errazagoa baita hizkuntza bereko ikaskideak aurkitzea, eta orduan, gutxiago erabiltzen dute ikasten ari diren hizkuntza.

Seme-alabak familia batera bidaltzea erabakitzen badugu,

eskatu familiari buruzko informazioa: esperientzia, etxebizitzaren mota...

Ikaslearen aseguruak

Beste gai garrantzitsu bat ikaslearen aseguru da. Aseguru berezi eta zabala kontratatu behar da, bat ikasle bakoitzeko.

Ikastaroa aukeratu eta gero, enpresa legala den egiaztatuta behar du. Dena ongi badago, eskatu bidai eta ikastaroari buruzko zehaztasun guztiak biltzen dituen idatzizko kontratua.

Zuhur jokatzuz gero esperientzia zoragarria izan daiteke.

EKA

EUSKAL HERRIKO KONTSUMITZAILEEN ANTOLAKETA

LIBURUAK



Sisifo maite minez
Laura Mintegi

TXALAPARTA

Barne sentimenduak azaltzeko joera agertu izan du beti Laura Mintegi. Eta hain zuzen ere, horixe egiten du «Sisifo maite minez» eleberri honetan, inoiz baino gehiago gainera. Bere idazlanean intriga ere nabarmen ahal da, nahiz eta bere arreta gehien bat maitasunak pertsonaien artean eragiten dituen egoeratan jartzen duen. Eta denen artean nagusi azaltzen den pertsonaia Ane dugu, bizitza lasaia daraman emazte eta ama arrunta, sen-

dagile batez maitemintzen den arte. Geroztik ezin izanen du bertze deustan pentsatu. Maitasun hutsez senarra zein alabak utzi eta Nikaraguara alde egiten du, maitemin hori ernatu dion pertsonarekin. Baina halere ez du lortuko barne baretasunik, maitasun sentimendurik horrek muturreko egoeretan eta beti ezinezona eta jelsokortasunaren menpe egotera daramalako. Azkenean, senarra eta alabengana itzuliko da, baina bere senetik aterata.

00-34 **948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ZONAKO ETXE GUZIAN ZUZEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzu berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BULDAIN

Leitzan 5 pisu salgai, horietako 2 igogailuarekin. Garajeak eta lokal komertzialak salgai. ☎ 649 476 615 ☎ 948 510 534 bulegoa

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

IGANTZI. Pisu, garajea eta sotoa salgai. ☎ 948 637 845 (1etatik 3etara).

LESKA. Antoiu karrikan 85 m²ko pisua salgai. ☎ 948 637

333 (eguerdian eta 19 eta-
tik aitzinera).

LEITZA. Pisu mobleztatua salgai. ☎ 948 510 169.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

BERA. Pisu merkea erosi edo errentan hartuko nuke. ☎ 652 708 901.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

BERA. Pisu mobleztatua errentan emateko Kantton-berri karrikan. ☎ 948 630 387.

ETXEBIZITZAK

105 Konpartituak

BERA. Pertsona bat behar da pisua osatzeko. ☎ 686 023 566 (gaueko 9etatik 10etara).

GARAJEAK

109 Errentan eman

BERA. Burga auzoan (Telefonikako etxeetan) garajea errentan emateko. ☎

ADOS

SUNBILLA: 26 etxe elkar atxikiak

Babes Ofizialeko 12 etxebizitza
90 m² + 40 m² garaje + lur zatia (aukeran)

14 etxebizitza modalitate librean
106 m² + 50 m² garaje + lur zatia



Hasiak gara erreserbak egiten.

Argibideak:
☎ 948 451 841
607 978 656



948631033 (arratseko 8 eta-
tik 10etara).

SARA. 800 m²ko gordele-
kua errentan emateko. Nahia
diren m²ak alokatzen ahal
dira, 400 pta/16 lib. m²a. ☎
00 33 559 54 28 06.

LANA
301 Eskariak

Esperientziadun zerbitza-
ria eskaintzen da udako bes-
tatan ostatueta lan egite-
ko. ☎ 948 615 054.

LANA
302 Eskaintzak

Pertsona bat behar da osta-
tuko barran lan egiteko. ☎
948 631 271.

Zerbitzari bat eta **parrilan**
aritzeko pertsona bat be-
har dira Berako jatetxe ba-
tean asteburuetarako. ☎ 948
625 472.

Mantenimendurako eta zer-

Alicia T. Erlanz
BEHAR DITUZUEN
LAN TXIKI
HORIENTZAT

OFIZIALE GUZTIAK
SERVI - LAN^{en}

Elizagibela, 5 • DONEZTEBE
Tel. 948456193 • Fax. 948450760

ARANTZA
ZYRGINDEGIA
Jose Miguel Errandonea
Klase guztietako
zurgin lanak

Osirña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

bitzu teknikorako informa-
tikoa behar da. ☎ 948 631
083.
Udan astean behin **etxeko**

lanak egiteko emakume
bat eta frantsesa dakien **nes-
ka bat** behar dira aste-
buruetan eta udan lan egite-
ko. ☎ 948 630 734.

Bortziritetako enpresa batek
persona bat behar du kon-
tabilitate eramateko. ☎ 619
829 289.

Pertsona bat behar da aste-
buruetan tabeman lan egite-
ko. ☎ 619 450 249.

MOTORRA
501 Salerosketak

Yamaha Virago 250 salgai,
NA-AV. ☎ 948 637 786.

Suzuki Santana luzea sal-
gai. ☎ 948 630 342.

MOTORRA
502 Tailerrak

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Ssangyong Muso TDI 5 ate,
Galopper 5 ate, Vitara Intercooler,
Clio D, Terrano haize egokitua.
SUZUKIAK ETA VITARA AUKERAN

GANIX
Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

ANIMALIAK
601 Emateko

Bi artzain zakur opari ema-
teko, 7 hilabete eta urte ba-
tekoa. ☎ 629 324 681.



**BOAN
TAILERRA**
CITROEN Banatzailea

**AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA**
☎ 948 63 06 23 • **BERA**

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Txekorrak salgai. Partikula-
rrendako egokiak. Kanalean
200-250 kilo artekoak. ☎ 656
740 521 edo 678 469 691.

Artzain-txakurkumeak sal-
gai. ☎ 646 835 594.

**Yorkshire ertaina eta fox-
terrier** zakurkumeak salgai.

☎ 679 892 036 (arratsalde-
ko 6etatik aitzinera deitu).
Bi hilabeteko txakurkume **pe-
kinesak** salgai. ☎ 677 089
430.

Aretxe haragiarekin bete
zure izozkailua. Momentu
honetan arras prezio onean
dago. ☎ 606 586 603.

LODITASUNA

EDAN ETA ARINDU!

*Zure pisua kontrolatua
gustoko janak baztertu gabe*

☎ 948 13 11 36



URDAZUBIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE URDAX

LANDIBAR AUZOAN UR-ZIKINAK BILTZEKO OBRA

- **Xedea:** Landibar auzoan ur-zikinak biltzeko obra.
- **Esleipen modua:** Prensari iragarritako prozedura ne-
goziazatua.
- **Aurrekontua:** 15.874.193 Pta. (BEZ barne).
- **Proposamenak aurkezteko epea:** maiatzaren 11ko
eguerdiko 12ak bitarte.
- **Proposamenak irekitzea:** maiatzaren 11n arratsal-
deko 8etan.
- **Baldintza Plegua,** interesatuen eskura egonen da Udal
bulegoetan.

Urdazubin, 2001eko martxoaren 2an

ALKATEA, Andres Diharassarry



URROZKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE URROTZ

URROZKO HERRIKO OSTATUA ALOKATZEKO ENKANTE PUBLIKOA

- **Xedea:** Urrozko Herriko Ostatura alokatzea.
- **Esleipen modua:** Enkante publikoa.
- **Hasierako Prezioa:** 20.000 Pta. hilabeteko.
- **Proposamenak aurkezteko epea:** Iragarki hau
Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko 30.
egun naturala arte. Orduak: 9:00etatik 12:00etara. azken
eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luza-
tuko da.
- **Baldintza Plegua,** interesatuen eskura egonen da Udal
bulegoetan.

Urrotzen, 2001eko apirilaren 10ean


ALKATEA, Maria Jose Larraioz Ariztegi

**ttipi-ttaparen ahalegina
bihotzez eskertuz**

ZORIONAK

eta...

**AUNITZ
URTEZ!**



Mallerrekako Mankomunitatea

☎ 948 451746 • Faxa: 948 451770

Merkatarien karrika 27 • **DONEZTEBE**

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.

**JULEN SALDIAS MURILLO** legasarrak 3 urte bete ditu martxoaren 27an. Zorionak eta muxuak aita, ama eta Javierren partetik.**JOSEBA GALINDO LEITZA** leitzarrak 2 urte bete ditu apirilaren 17an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.**AMAIA LEITZA** lesakarrak apirilaren 14an bete ditu 25 urte. Zorionak Lesakako familiaren partetik.**IBON IRAZOKI PETRIRENA** lesakarrak 2 urte bete ditu apirilaren 18an. Muxu handi bat gure berritsuari. Denon partetik.**ANDER OSKOZ GAGO** doneztebarrak 7 urte bete ditu apirilaren 12an. Zorionak eta muxu bat familia guziaren partetik.**DANIEL GARCIA** 7 urte bete ditu apirilaren 6an. Zorionak eta 7 muxu anaia Daniel, aita, ama eta Eratsungo familiaren partetik.**JOSEBA OLAGARAI GOIENETXE** etxalartarrak 17 urte beteko ditu apirilaren 28an. Zorionak familia guziaren partetik.**LEIRE OLAGARAI GOIENETXE** etxalartarrak 15 urte beteko ditu apirilaren 30ean. Zorionak etxeoen partez eta aunitz urtez.**ENEKO TELLETXEA IRAOLA** igantziarrak 8 urte beteko ditu apirilaren 24an. Aunitz urtez familia guziaren partetik.**NAROA ETA LIERNI TOLOSA BURLADA** bixki beratarrek 5 urte beteko dituzte apirilaren 22an. Zorionak aita, ama eta Gorkaren partetik eta muxu handi bat bieri. Egun ona pasa ezazue!**NEREA ANTZIZAR IRAZOKI** beratarrek 10 urte beteko ditu apirilaren 19an. Zorionak Uxue, aita eta amaren partetik.**SAIOA ANDUEZA** lesakarrak 16 urte beteko ditu apirilaren 29an. Zorionak "Tastora", txanpainaren esperoan gaude.**SAIOA ANDUEZA** lesakarrak 16 urte beteko ditu apirilaren 29an. Zorionak nere azukre kokkorriari X. S.ren partetik.**MIRIAN SAPPPO GALAIN** doneztebarrak 4 urte bete ditu apirilaren 22an. Zorionak eta muxuak aita, ama eta Silviaren partetik.**ITZIAR ALTZUGARAI ALVAREZ ETA NAGORE FERNANDEZ RUIZ** lesakarrak apirilaren 11n eta 23an 6 eta 5 urte beteko dituzte. Zorionak familia guziaren partetik eta batez ere Iñaki enanoaren partetik.**MIKEL MUTUBERRÍA PEREZ** Aupa enkaregatu biki! Ea aldatzen dituzun arrantzale galta hoielk Zorionak.**ANASTASIA ERRANDONEA ERRANDONEA** beratarrek apirilaren 20an urteak beteko ditu. Zorionak seme-alaba eta biloben partetik.**ANA ELIZALDE BENITEZ** lesakarrak 5 urte beteko ditu apirilaren 20an. Zorionak aita, ama eta Javierren partetik.**ENEKO MAULEON SALAZAR** irundarrak 16 urte beteko ditu maiatzaren 3an. Zorionak familiaren partetik.**ARITZ** eta **JOSEBA IRAZOKI** etxalartarrekin 4 urte beteko dituzte apirilaren 21ean eta maiatzaren 1ean. Zorionak.**IXIAR ANDUEZA** beratarrek apirilaren 6an urteak bete ditu. Zorionak txabalota, 19 urte, osea *que fuerte!* Maria eta amaren partetik.**IMANOL ARRETXEAA GOÑI** elizondarrak 10 urte beteko ditu apirilaren 21ean. Aunitz urtez. Guraso, Itsaso eta Donamari-ko familia.**GORKA TELLETXEA REYES** beratarrek 7 urte beteko ditu apirilaren 24an. Zorionak familiaren partetik.**AGURTE MARITXALAR SALABERRÍ** igantziarrak 11 urte beteko ditu apirilaren 29an. Zorionak Sara, aita, ama eta familia osoaren partetik.**JAIONE ELIZAGOIEN ELIZOGOU** elizondarrak 10 urte bete ditu martxoaren 31n. Zorionak bere familiaren partetik eta 10 musu.**NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 40 PEZETAKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**ttipi ttapa • Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA (Nafarroa)

2001eko telefono gida ale honekin batera

Zure telefonoaren ondoan edukitzeko eziberteko laguna. Ez duzula eskuratu? Deitu **948 63 11 88** telefonora



Zorionak **ttipi-ttapa** eta
segi Euskara indartzen!

SAN MIGUEL Ikastetxea

Haur eta Lehen Hezkuntza

Tfnoa: 948 456 144

MENDAUR Institutua

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Tfnoa: 948 456 005

*Urte askotarako,
segi aurrera!*

LEITZA - LARRAUN - ULTZAMALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA



Euskara Zerbitzuak

| | | |
|----------------------|--------------------|----------------------|
| Leitzaldea | Tel.: 948 61 06 36 | • Faxa: 948 51 08 16 |
| Larraunaldea | Tel.: 948 50 44 00 | • Faxa: 948 50 41 32 |
| Ultzamaldea | Tel.: 948 30 51 34 | • Faxa: 948 30 54 43 |

ZABORRAK BEREIZI ETA BOTA BAKOITZA BERE ONTZIRA: ASKI ERRAZA DA



PAPERA ETA KARTOIA

Kolore urdina duten zaborrontzietan

- ⇒ Egunkariak eta aldizkariak
- ⇒ Foiletoak eta publizitate orriak
- ⇒ Kartoizko kaxak, ...

Birziklatu, guztiok irabaziko dugu



BORTZIRIETAKO
HIRI HONDAKINEN
MANKOMUNITATEA



MALERREKAKO
ZERBITZU OROKORREN
MANKOMUNITATEA

ZABORRAK BEREIZI ETA BOTA BAKOITZA BERE ONTZIRA: ASKI ERRAZA DA



ENBASEAK

Brik, plastiko eta metalezkoak

Kolore horia duten zaborrontzietan

- ⇒ Garbiketa produktuen botilak
- ⇒ Ur eta freskagarrien botilak
- ⇒ Esne eta zuku ontziak
- ⇒ Freskagarri eta kontserba latak

Birziklatu, guztiok irabaziko dugu



BORTZIRIETAKO
HIRI HONDAKINEN
MANKOMUNITATEA



MALERREKAKO
ZERBITZU OROKORREN
MANKOMUNITATEA

BIRZIKLATU, GUZTIOK IRABAZIKO DUGU

TAMAINA HAUNDIKO HONDAKINAK



BAI

- ⇒ Mobleak, hozkailuak, telebistak, motoak...
- ⇒ Gehienez ere hiru lagunen artean mugitzeko modukoak

EZ

- ⇒ Industria eta obrako hondakinak
- ⇒ Animalia hilak eta hondakin begetalak

BILTZEKO EGUNAK:

BORTZIRIAK: HILABETEAREN 2. ORTZEGUNETAN

MALERREKA: HILABETEAREN 3. ORTZEGUNETAN

Telefonoz deitu asteartea baino lehen eta etxera joanen dira biltzera

BORTZIRIAK ☎ 948 635 254

MALERREKA ☎ 948 451 746